

PROGRAMA: EKIMEN EKINTZAILEEN SUSTAPENA

Aholkularitza eta prestakuntza-ikastaroak

Xedea	Enpresa proiektuak sortu eta abian jartzeko aholkularitza.
Erakunde onuradunak	Udal izaerako enplegua eta tokiko garapenerako zentroak. Irabazi-asmorik gabeko fundazioak, elkarteak eta bestelako erakundeak Enpresa-kudeaketan gutxienez hiru urteko esperientzia dutela egiaztatu behar dute.
Diruz lagundu daitezkeen egitateak	Lehenengo fasea: enpresaren eta enpresa-kudeaketaren sarrera. Enpresa kudeaketari buruzko 30 orduko talde prestakuntza da. Prestakuntza modu presentzian, erdipresentzian edo telematikoa eman ahal izango da. Modu presentzian edo erdipresentzian emandako prestakuntzak taldekoa izan beharko du, gutxienez 8 sustatzailerekin eta gehienez 25 sustatzailerekin. Bigarren fasea: banakako aholkularitza, pertsona sustatzaile bakoitzeko 40 ordu, gehienez, negozio-plan zehatza egiteko. Aholkularitza gehienez 80 ordukoa izango da, baldin eta enpresa-transmisiora zuzentzen bada, 20. artikuluan ezarritako baldintzetan.
Diru-laguntza jasozko dezkaketen gastuak:	Kanpoko prestakuntza-gastuak. Diruz lagundutako ekintzetan parte hartu duten erakunde onuradunaren langileen barneko gastuak (prestakuntzari edo aholkularitzari lotuak). Diruz lagundutako ekintzan zuzenean parte hartu duen pertsonalaren soldatak eta gizarte-kargak baino ez dira sartuko.
Diru-laguntzaren zenbatekoa	Erakunde bakoitzari gehienez emango zaiona: 80.000,00 euro. Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, honako kontzeptu hauek batuko dira: a) 1.500 euro biderkatu behar zaizkio 2020ko urriaren 13tik 2021eko irailaren 30era bitartean aholkatu eta abian jarri diren proiektuen kopuru osoari % 10 gehitzearen emaitza den zifrari. b) 3.000 euro biderkatu behar zaizkio 2020ko urriaren 13tik 2021eko irailaren 30era bitartean aholkatu eta abian jarri diren enpresa transmisio proiektuen kopuru osoari % 10 gehitzearen emaitza den zifrari.
Arautegia:	Bizkaiko Foru Aldundiaren 77/2021 FORU DEKRETUA, maiatzaren 25ekoa, Diru-laguntzak emateko, norgehiagoka araubidea, hainbanaketarekin, erabiliko da.
Epeak.	Ekintzak egiteko epeak: Diru-laguntza jasotzen duten ekintzak 2020ko urriaren 13tik 2021eko irailaren 30era egin beharko dira. Eskabideak aurkezteko epea eta modua Eskabideak aurkezteko epea 2021eko ekainaren 7an hasiko da, 8:00etan, eta 2021eko ekainaren 18an bukatuko da, 13:30ean. Eskabideak eta gainerako dokumentazioa Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez aurkeztu behar dira https://web.bizkaia.eus/es/inicio "Izapideak"en bidez.. Horretarako, sinadura elektronikoa beharko da (Izenpe, NAN elektronikoa, sinadura elektronikoa aurreratua, B@KQ...).